Erref. kodea: LAF-402-021

Izenburua: Peio Erramuzperen bertsoak, batzuk Simon Erramuzpek idatziak. Edukia: 377-394 zenbakidun bertsoak

# Villes et Paysages de France

Peyo Erramouspé

Phot. Rep et Fillette.



SAINT-QUENTIN Hôtel de Ville.

Librairie-Papeterie Ch. ROBERT, 49, rue du Pas-St-Georges, Bordeaux.

Simon Erramuzpe

- Peio Erramuzperen biografia

P. Erran.

Renseignements demandés sur mon père

Né le 30 octobre 1880. Aîné de neuf enfants
il se maria à trente ans, chez lui
Il a fréquenté pendant deux ans l'école
communale. Ensuite il a suivi avec assez
d'assiduité des cours que faisait le soir son
oncle alors surveillant des Mines de Banca

Il lisait les chansons que publiait
régulièrement l'"Eskualduna" et a appris
à versifier dans un traité de versification
que faisait publier Adéma. Son oncle lui
enseignait comment s'y prendre dans
les débuts.

Très jeune il improvisait avec facilité
Il a participé à divers concours d'improvisation
dans les principales localités du pays
Basque avant son mariage.

Dans l'"Eskualduna" pendant que Iriart-Urruty y étoit directeur, a fait de la chronique locale et quelques articles de critiques dans les luttes électorales.

Simon Etxamendi

de Banca

Peio Erramuzpe

'Baigorriko bertsolariak'

Huna nik ezagutu ditudan pertsulariak
ene eskualde huntan. Biga dire.
Betiri Ibarrart eta Joanes Etcharren
Ibarrart etzen Baigorrikoa sortzez, bainan
demborarik gehiena Baigorrin egona eta
nik uste Lapurdi zatsukoa.
Bere ofiziotz zapetaina eta Baigorrin elizako
kantari edo chantre egona hil artio
Berak erranik dakit Eskualherriko herri
gehienak, larriikkoenak, iraganak zituela
koplaka. Boz bat bazuen edarra, irkaitza
ezpainetan, begi ñimiño batzu argi argia
arizen koplaka bainan polliki artetan sistako
batzu igorriz partidari maltzur maltzurra
Ahopaldi garbia eta kontseilu ona ausarki
Plaza batean aditaraztan zuen edorki:
Baigorrin bikario zelarik Dominique Mocoçain
Muguerren errotor egona, eta han zendua
goiz batez ari arraintzan Mitchelengo zubiaren
gainetik amuaz, hor aize hego bufa bat
jiten zaiko eta chapela burutik eremaiten,
eta botatzen urerat! eta urak behiti berekin
gure jaun bikarioa ~~A~~ Kechu arrainak urean

utzirik borboila hutsik, itzultzenda etcherat
buruhas. Eta chantre malthurrak garri
Kantuak. Dakizun bezala ainitz Kantu
egindu. Hogoibat urte aire hori duke
hila dela lauetan hogoi urtez gainetik izanik
adina.
Joanes Etcharren Irulegui Agerreko semea
duela lizpahiru urte aire hori duke hila
dela (chuchen ez dakit) hiruetanhogoieta
bospasei urte aire hori zuken
Boza etzuen ederra eta zuen hura ere
arras apala. Plaza batean etzuen adiaraztera
ahal. Bainan barnean mahain baten inguruan
arizen arsa, patchadarik gabe. bainan solas
gizen batzu ere botatzen zituen aski ardura
Irri eginarazteko zuen bere jite guzia bere
buruaz hartua ere puchkabat eta partidak
hertsatzen bazuen eginerazion ausiki ~~gai~~ gaichto
bat edo bertze Bide chuchena utzirik bazter
bidetik jokatuz. Kantuetan ere saila makurtzen
zuen askotan eta ausikia merke
Kantu guti egin duke ene ustez nun ez duen
bat edo bertze egin norbaiten jorratzeko



Huna orai ni sortu baino lehenago izan
diren bia. Menturaz aditu dukezu baten
izena "Chantcho koplaria"
Sortzen mugaz bertze aldetkoa Nabartarra
ez dut nehoiz aditu zoin herrikoa zen sortzez
Bainan ardura hemen alde hotan ebiltzen
bide zen. Mandazaina bere ofizioz.
Ene haur demboran, ja zahartuak zirenek
erranik dakit 1835 etik eta 1850 artetsu
hortan ebiltzen zela hemen Eta orobat Ibainetatik
Arneguin behiti ere jausten zela Karreinzan
Urepeletik goitiko mendiak gora zuhalarik
elurrean hotzak hila hatzeman omen zuten
gizagaichoa. Trufaria ere zitaken eta orobat
Kokina ere Behin Nabarra Lantze
erraiten dioten herriko auzaphezari jo omen
zion atea gau batez, eta auzaphezak norda hor
erran zioneko izigarriko uzker bat egin eta
lasterka ihesi joan. Bainan ezagutu bai tzuen
auzaphezak, pagaraz bi duro Bai eta Chantchok
bertsuak ezarri
Lantzen bizi dena garbitasunian
Uzkerra Kontrabanda dutela herrian
Arrapatu nahi duenak ubilen aldian
Ezpata baino hobedik sudurra guardian

## Bertze behin Baigorrin

Hamar orenak jotzean ni Antchartéko atean
Iguanda char batzu hemen dabiltza ene madoan atzean
Afari guti egiñen die Chantchoren gostuz Frantzian

Aldi batez Orrean iragaiten zelarik hango Kalonje
buruzagiak erran omen zion trufatzeko
Mando baten gainean zauki marrea tchar bat
dena chirdinga dariola.
Errazu adichkidea zombatetan saltzen da
Marrea hortarik bara.
Eta Chantchok eskubatez mandoari buztaña
ailtchatuta erreposttua
Botiga ointan sar zaite eta Komponduko gara.
Eta Arnegin iragaitean ore jaun erretorak
otoiztu omen zuen eman zezon bertsu bat
emanen zakola 10 sos Chantcho hasten zaiko eta
bat eman eta bertzea aitzina ari. eta jaun
erretora enoatua azkenean eman beharko ichiltzeko
bertze hamar sos

Huna orai bertze bat hau herritarra
izena zuen Manch Aphezena ez hatik
bethi izenaren arabarako. Bildostegia erraiten
zakoten etche batean sortua geroztik etchea
yeztatua da.

Doi doia yaguitu dut haurrean 80 urte
segurik bazuzken. Saritan artzen omen
zen bertsutan bertsu bakotika 20 sos eta
ardureneán norbaiti mendokatzeko.
Ohointza bat eginik etche batean amak salatu
bide zuen hamarbat urte iragana preso
presondegian zelarik amari kantuak ezarri ziozkan

Ene ama enuchenta lauhogoi urtetan
Gaztekc fartuz orai dabil eskoletan
Charrantcharikan gabe daukate bridetan
Beldurrez minhar dezan azpiko hortzetan

Bertzaldi batez ere herriko mutiko bizkar
makur bati.
Goinuko mutil zinen joanden igandian
Desiretan zinauden segur aspaldian
Zaharoa eskuan artoa bizkarrian
Ororen irrigarri plazaren erdian

Lehen biak niharurek ezagutu ditudanak dira eta azken bida hok aldiz. ez. Hok yagutu dituztenek erranak dauzkizut erraiten.

Peyo Erramouspe

Peyo Erramuzpé

eta Larramendy

Erramuspe eta Larramendi-ren pertsiak

1er couplet

Agur eta ohoré Peyo Erramuspe
Zurekin mintzatzeko desira banuke
gure azken yostetak baditu bost urte
Orduan holakorik ez ginduen uste
Oraino kontent oso utzi baigituzte

AS.

2e

Ni oso utzi nute zu ere gisala
ikusten dut itchura hunian zirela
Yainkuak berriz ere onhets dezagula
lehen bezala kantatzia zonbait kobla
trichtezian direnak ditzagun konsola

3e

Nik ere hori bera nuke egin nahi
Trichten kontsolatzeko ezpaita goizegi
bethi pena goguan bizi direneri
changrina zeiee bere gorputz yaten ari
Bakotchak hobe luke kontsola baladi

4e

Minduenak arrazoin du atch egiteko
bainan hau pentsa beza penen ahazteko
Gu ere ez girela munduan bethiko
Hek egin duten lana dugula egiteko
Hek zeruan direla ezda dudatzeko

5ᵉ

Eni ere Zaut iduri gerlan hil orori
Zerua eman dela odolaren sari
Guk bitoria Kendu barbaro Zarrari
Gure lagunak hantik irriz daude guri
Odola ez dutela debalde ichuri

6ᵉ

Beraz penak utzirik plazerak gogora
Finitu Zaukulakotz gerlako denbora
Etsaiak ~~ezarrik~~ ezarrik oro Zangoz gohora
Gillaume da eskapi Holanda Zokora
Yan arazi beharra Zaku bat bolbora

7ᵉ

Irri egin garri da diozun gomëtsan
Zaku bobora tripan nok behar du jasan
hari su eman eta erretzia brasan
Etzuen ez sobera Zerbait sofri zezan
Hura bezain Krudelik ez delakotz izan

8ᵉ

Bihotz gabe urguluz hanpatu Krudela
Ez uste hura baizik gizonik bazela
Yainkua Zerian bezala hura lurrian zela
hola plantatu nahiz piztu zaukun gerla
Oro suntsitu nahiz herrautsa bezala

9ª

Ezdu suntsitu bainan gerlaren hastian
Gutarik zonbaitekin arizen gustian
sotarekin bazakien espion tratian
Gu bethi salatuak ginanden tokian
Clemençau buruzagi plantatu artian

10º

Clemençok balentria ederrik egindu
haren medioz gira hein huntarat heldu
harek espionak oro prensundeirat bildu
hola etsai guziori indar hanitz kendu
Hurosak hastian hura izan balitz buru

11º

Lagun bat ere harte izandu leiala
Soldaduen manatzeko oi Foch Yenerala
Harek manatu eta soldadüek bereala
Baliatu izan dute beren egin ahala
Eta irabazi gerla zuzen den bezala

12º

Harekilan Castelnau bertze zonbait ere
herriarentzat bethi fide egon dire
Oro Bolo bezala arizan balire
Guillaumek eguin zuen arraintzako sare
laster Yarriko baitzen munduaren yabe

13.

Denen orduan hanitz malur eta pena
ezin egin izandu desira zuena
izan daiken gizona daiken abilena
Baldin ezpalindu segitzen zuzena
Ondikotz galdua da gaizki dabilana

14.

Ezagutza duenak dezake Kompreni
Hura zabilan plantan etzela Komeni
Hastian azkar bainan gero ezin furni
gaizki hasten den lana ezin untsa fini
Yainko bat denaz geroz ordu zuen puni

15

Yainko bat badela hor ezda dudarik
Hura gabe ez ginion irabaz gerlarik
Etsaien yosta charrez asechi delarik
laguntzak eman dauzku alde orotarik
bai Europatik ala Amerikatarik

16

Behar ere yin zauzku Amerikanoak
Etsaien garhaitzeko hek zer puttikoak
Berthute dutenak bazterretakoak
gu akituak bezain batziren freskuak
Egin dauzkute laguntza pare gabekuak

17ª

Earran dezagun beraz biba amerika
Frantses Angles Italia bai eta Belgika
Rumania Serbia Rusian erdizka
Han zer arizan diren etzaket esplika
heien hitzian ezdaike gerlarik aplika

18ª

Aipha ditzagun ere gure desertorrak
Nago hek etzirela Eskualdun purrak
ez dira heier esker chuchendu makurrak
Oro izan bagina hek bezain uzkurrak
Aoren esku zitazken frantziako lurrak

19ª

Esker eta ohore diot guzieri
Herriarentzat fidel egon direneri
Gaichuak gosta zauku geroko zernahi
bainan frantzia ezarri lehen bezain handi
orai bake oso bat segurta baladi

20ª

Yainkuak dezagula bakea etchian
bakea auzoekin bai eta herrian
bakea erresumaan elgarren artean
bakean har gaitzala guziak hiltzian
Zeruaz goza gaiten Eternitatian

fini

1er Couplet

Agur eta ohore Prezo Erramoustié
zuzekin mintzatzeko desira genuke
Gure azken gostetak badita bosta urthe
Oraino holakoak ez ginuen uste
Kontent oraino oso utzi baikitizte

2eme

Ni ere utzi nute zure gisala
Ikusten dut itchura onian zirela
Berriz ere jainkuak onest dezadula
Lehen bezala Kantatzia orai zonbeit copla
Trichtezian direnak ditzadun Kontsola

3eme

Nic ere gauza bera nuke egin nahi
Trichteri Konsolatzia ez baita doingai
Bethi penac gogoan direneri
Beren bihotzac changrinez iaten ari
Bakotchac hobe luzke Konsola baledi

4eme

Min duenak arrazoindu ach egiteko
Bainan hau bethi pentsa penen ahantzteko
Gu ere ez gisela munduan bethiko
Hek egin duten lana dugula egiteko
Hek zeruan direla ez da dudatzeko

5ème

Niri ere zaut iduri gerlan hil orori
Zeruan eman dela ddolazen sari
Gure bitoria kendu barbaro zarrari
Gure lagunac handic irriz daude guri
Ez dutelacotz odola debalde ichuri

6ème

Orai penac utziric plazerak gogora
Finitu zaukulakotz deslako tenbora
Gure etsaiak ezarri oro zangoz gora
Guillermi eskapatu Olandako zokora
Yanarazi beharra zaku bat bolbora

7ème

Irri egin garri da diozun kombertsan
Zaku bat bolbora tripan nork behar du jasan
Hari su eman eta erretzia lasan
Etzuen ez sobera zerbeit sofri dezan
Hura bezen krudelic ez delakotz izan

8ème

Bihotz gabe urdulu kampatu krudela
Ez uste gizonic hura baizic bazela
Jainkoa zeruan bezala hura lurrian zela
Hala plantatu nahiz piztu daiku gerla
Oro suntsi beharrez errausa bezala

9ème

Ez gitu ez sumtitu bainan gerlaren hastian
Gutaric zombeitekin ari zen gastuan
Sosasekin bazatzien espiritu itsatuan
Gu bethi ~~ginanden~~ salatuz ginanden tokian
Clemenceau busuzagui plantatu artian

10ème

Clemenceauk balentria ederrik egin du
Haren medioz gira hain huntarat heldu
Harec espiunde oso presondeirat heldu
Hartan etsai zaharrari indar hanitz kendu
Urus hastian hura izan balitz buru

11ème

Lagun bat ere izan du leihala
Soldadoen manatzeko oi Foch generala
Harec manatuz gero soldadoek berehala
Egin izan dute bere egin ahala
Eta irabazi gerla zuzen zen bezala

12ème

Harekin de Castelnau bertze zembeit ere
Herriarentzat bethi fidel egon dire
Oro bertze zonbeit bezala arizan balire
Guillaumec eginen zuen arrantzako sare
Laster yarriko baitzen munduaren jabe

13^eme^

Denen buruan hanitz makur eta pena
Ezin egin ahal dut desira zuena
Aljizarta izan dadin den abitena
Ez badu segitzen bere zuzena
Andikotz galdua da gaizki dabilana

14^eme^

zentzuric duenac dezake conprenni
Hura zabilan plantan ez dela konbeni
Hastian azkar baiman gero ezin fini
Gaizki pasik lana ontsat ezin fini
Gaiko bat denaz geroz ordu zuen puni

15^eme^

Jainkobat badela hor ez da dudaric
Hura gabe ez ginion irabaz gerlaric
Etsaien yestudcharrez aseche delaric
Laguntza igorri darku alde orotaric
Bai Europatic eta alde orotaric

16^eme^

Jin zaizku ere Amerikanoac
Etsaien garraitzeko oi zer puttikoac
Bertute on dutenak baz tiesretikakoac
Gu akituak bezen baitziren fleskuac
Egin dauzkute laguntza pare gabekoac

17me

Dezagun erran beraz biba Amerika
Frances Angles Italia bai eta Beljika
Rumani Serbi eta Russia erdizka
Hek zer arizan diren ez diot esplika
Heien hitzian ez daike gezurik aplika

18me

Aipa dizadun ere gure deserturrac
Nahi nuke hek ez diren eskualdun purrac
Heiri esker ez dire chuchendu makurrac
Oro izan balire hek bezen uzkurrac
Norena eskuko ziren Frantziako lurrac

19me

Esker eta ohore diotet deneri
Herriarentzat fidel egon diseneri
Gaichoak gosta zauku guretzat zernahi
Bainan gure Frantzia egarri lehen bezen handi
Orai bake oso bat segurta balide

20me

Jainkoak dezagula bakea etchean
Bakea auzoekin bakea herrian
Bakea erresuman elgarren artian
Gero har gaitzan guziak zeru ederrian
Loriaz goza gaitzen eternitatean

Fini     Larramendi - Erramouspé

## 1 – Gaizki erailea

Airea : orhiko choria

Gaizki erailea bethi bertzez gaizki erranka
Jelosia gaichto batez orori mendekuka
Itzal bat ikus' orduko hura konda orhuka
Ez oraino den bezala... emendatuz doblezka

2

Bihotza eta mihia betheak erabiaz
Zerbait erraiteko badu bertzen bizi moldiaz
Bera bethi zuzenean... juja bere mihiaz
Bekaizti dagoelarik bertzek duten ongiaz

3

Batentzat eranen hola bertze batentzat hala
hau alfer hura gormenta hau berriz ezachola
Eta hura dabilana behar ez den bezala
Guzieri erasian holachet tirahala

4

Lasto bat bera ikusten bethi bertzen begian
Samatsa bezain handia behinere berian
Bere hutsak bethi kuku gibeleko zakian
Bertzenak aitzinekoan guziak agerian.

5

Arrazoin guti ginuke bertzeen jujatzeko
Bakotchak gure itzalak ditugu jasarteko
Hutsik gabe denik nor da bertzer hola artzeko
Guhaurnen burua dugu lehenik chuchentzeko

## 2. Urtheon orori

Agur urthe berria et' ongi ethorri
Zaharra nagonik beha nago zuri
Ona heldu zirenez eztzira ageri
Bainan nahi dut erran urthe on orori

2

Buruko bilo churi aurpegi chimurrak
Urtheek eremanak abantchu indarrak
Desiratzen dauzue egun zuen haurrak
Zuer bier urthe on aitama zaharrak

3

Lotuz geroz sailari ez naiteke geldi
Burhasoen ondotik orai zuen aldi
Amodioz betheak gaudenak elgarri
Urthe on arrebeeri eta anayeri

4

Arimen gidatzeaz kargua duzuna
Yainko eternalari osoki emana
Zu zire holakoa herriko artzaina
Desiratzen dauzut bozik urthe ona

5

Batzu urrun joanak, herrian bertzeak
Zombait haurreko lagun on eta maitheak
Urthe on derauzuet zuer ahaideak
Zueri gauza bera eni adichkidiak

6

Bide chuchena zoin den erakustailea
Gaichtoen kontra bethi kurayez bethea
Berri emaile bipil, ongi egilea
Urthe on Eskualdun kazeta maitea

7

Etsaieri diotet urthe on erraiten
Hekientzat Jainkoa bethi dut othoizten
Eta bihotz guziaz hau dut galdegiten
Herrak oro utzirik bakean jar gaiten

## 3. Bozkatzez

Gaichtaginek dauzkate onak zangopetan
Frantzia erresuma eder maite huntan
Ditugularik orai harmak ez eskuetan
Berma gaiten suharki bozka egunetan

2

Gure harmak baitire bozkako paperak
Dituztenak berekin gaitzeko indarrak
Onak eman ditzagun eta utzi tzarrak
Gaichtoek ez ditzaten pasa beren parrak

3

Indar egin dezagun, orai altchatzeko
Etsaien menetikan gure libratzeko
Begirik duenak du ongi ikusteko
Tenorea dugula orai ernatzeko

4

"Liberté" hitz hori bai, ardura ahoan
Lege tzarrezko sokak ditugo lephoan
Eliza zituenez gabetu on doan
Haur gaichoen galtzea baitute goguan

5

Etsaiak hor ditugu oro elhe zuri
Gezur sinets araztera choro direneri
Fuera behar ditugu aldetik igorri
Ez dezaguten egin ondotikan irri

6

Indek eman ditzagun eskuak elgarri
Batasunak indarra egiten du handi
Elgar lagun dezagun bat eta sokorri
Gaichtaginen menean ez gaitezen geldi

## 4. Udako egun batez  Airea: Ttiki ttikitik...

Azken izarrak iguzkiaren aintzinean dira gorde
Choriek kantu errepikatan egun berria da haste
Izar chintzak busti belharrak chut eta pherderik daude
Damurik oro beroak ditu chimeldu behar ichtante

2

Iguzkiak du kalda gaitzean samminki lurra berotzen
Jentzetan diren liliek dute usain on bat barreatzen
Emeki emeki gozzak ditue ~~az~~ zantzak dira ichiltzen
Egun erditan ez da deusere arrabozikan entzuten

Bainan hargatik zer da ikusten orenttoo baten buruan
Hedoi mukuru batzu haunditus agertzen dire zeruan
Eta haitzeak aphurbat hasten bi aldetarik guduan
Ilhun ilhuna jartzen da laster lurraren gaina orduan

4

Gero chimichtak hedoi beltzetik churtziriak ondotik
Izigarriko Karraska batzu entzuten dira gainetik
Laborariak ere lasterka ihes dohazi lanetik
Diotelarik batzuk bertzeri: « Goazen etcherat hemendik! »

5

Karraska hetan iduri luke oro direla lehertzen
Chimichta argi samurrak ditu begiak berak lotsatzen
Ikararekin oro dardaran orduan gira zeinatzen
Santa Barbara othoitz eguzu erreak izan ez gaiten

6

Zerutik jautsi ~~uhar~~ uri larria uharka doa bidetan
Erreka bera gaindi eginik hedatu da bazterretan
Bainan harria urrundu doa arrabotsik gaitzenetan
Eta guziak Kamporat beha daude leiho gibeletan

7

Lur egarritu idorra orai jarri da urez asetik
Arbola eta landare orok mainho ezti bat harturik
Horra nun diren fresko freskoa oro indar berriturik
Bainan Jainkoa ~~ber~~ beira gaitzatzu erauntsi gaichtoetarik

5. Uda

Laudatua izan bedi denboren egilea
Jainko guziz botheretsu eta denen jabea
Udia nagaitera dohalarik urthea
Uda bat igortzen dauku iguzkaldez bethea

2

Akabo urite luze eta ur galgitzeak
Udak ekhartzen dauzkigu egun batzu hobeak
Hortakotz bozkariotan zahar ala gazteak
Guzien bihotzak daude ziriorez betheak

3

Nahut ederki dituen aphaintzen primaderak
Zelaiak lehenik eta gero mendi muthunak
Bainan udak ditu bethi aberasten bastenak.
Ontharazu gauza hainitz uztail bero ederrak

4

Urt aileko iguzkiak berthizki berroturik
Landarek iduri dute daudela lotsaturik
Bainan ikus gero uri orzantz baten ondotik
Pherde eta fresko daude atseginez betherik

5

Mendichka baten gainetik behatuz zelhaiari
Ikusten dira basterrak begien choragarri
Artha alhorrak Phederik eta ogiak hori
Kolore desberdin hortan udak ditu ezarri

6

Goizean goiz jeikitzen da udan laboraria
Lanaren ondoan dago argi beha jarria
Erramkan gure aita eta agur maria
Jainko jaunak benedika dezan egun berria

7

Nekheak oro ahantziz lanari zaiko lotzen
Hazkurririk hoberena orduan baitu biltzen
Ogiak ditu artoski ephaiten eta jotzen
Artoak berriz ederki ari zauzko handitzen

8.

Ardiak alharazirik ongi argi hastean
Etzanik dago gochoki artzaina itzalean
Errepikan kantuz ari aire zahar batean
Hola du atsegin hartzen uda jiten denean

9

Oi uda zuk emaguzu guzien hazkurria
Urtheko bertze demboren ama zare jarria
Gure beharrak zuk estal eta gu bozkario
Agur agur zuri denek uda maithagarria

6. Eskualdunak eta Gernikako Arbola

Eskualdunek ohore, egun Gernikari
Hango arbola eder choragarriari
Beren zaukun hedatzen orotarat ari
Zazpi Eskual Herri ederren lokhari

2

Elgar maitatzen dugu Eskualdun guziek
Anayatasun batez handi'ta ttipiek
Nahiz bi aldetarat zauzkaten mendiek
Gernikako haritza lokharri zazpiek

3

Orok erraiten zuten eroria zela
Eskualdunak bethikotz galduak ginela
Bainan laster berri bat ethorri zaukula
Hil badare umeak askar dituela

4

Mil urthe nagamik azkenean hiltzen
Gure aba arbaso zaharrak harat ziren biltzen
Eskualdunen zuzenak handikan berratzen
Elgarrekin suharki hautchet litz egiten

5

Espanian Gernikako arbolaren pean
~~F~~ Frantzian, Ustaritzen, Haitzeko gainean
ikus garriak ziren bat a la bertzean
Beren zuzenen alde mintzo zirenean

6

Ustaritzko biltzarra aspaldi galdua!
Seietan hogoi urthe badu hil(l)dua.
Orhoitzapenak dauku arintzen gogoa
Estekan dugulakotz geroztik lephoa

7

Oraino irauten, Gernikan biltzarrak
Han dire bateratzen Eskual dun zuhurrak
Odol esko gainetan bihotzez suharrak
Nihoiz ez du baratu etsaien beldurrak

8

Arbola saindu hura bizi zelarikan
Ondarea utzi zuen bere hazitikan
Ama hila aldean han dagoztikan
Haundi ta azkar oloha bethi indarretan

9

Mende hunen ^hastean^ haitz gazte hartarik
Zazpi ezkur zituzten ezarri erainik
Eskual Herri bezainbat hola bereziztik
agertu othe dira zazpiak zorthurik?

10

Zazpi erainetarik hortz dira agertu
Biga lurrean dira sorthi gabe gelditu
Biga galtze hortarik zer othe da heldu?
Nahiago ginuken ez baliz galdu!

11

Landare hetarikan bat guri igorri
Orduan bozkarioz oro gira jarri
Bihotzez amodio ispainetan irri
Ustaritze haitzean landaturik zarri

12

Oi Gernikaren ume parerik gabea
Algegin da guretzat zure ikustea
Zu zira orai gure kontsolatzailea
Libertate saindukko arbola maitea

13.

Arbola saindua du orai Ustaritzek
Ohora dezagula Frantses eskualdunek
Besta gaitzak eginez hortako guziek
Ildotza dantza eta pertsuak zombaitek

14

~~Hon~~ Hori zen lehenago toki hautatua
Hor egiten baitzuten biltzar aiphatua
Haundi ta azkar zaite arbola saindua
Izanen zira gutaz bethi maitatua

15

Leku horren gainean gure aitek lehen
Orhoit gaitezen guziak zer egiten zuten
Batasunean zuten zuhar hitz egiten
Eskualdunen zuzenak oso egon ziten

16

Gizon bedera zohan herri bakochetik
Biltzar dembora zuten iragaiten chutik
Ororen buruzagi zena zen bakharrik
Haritz'alki batean egoiten jarririk

17

Ikhusgarri ederrak ziren dembora hetan
Orhoitzapena dugu orai bihotzetan
Atchikan duguno guhaurrek zainetan
Eskualdun izan gaiten hitz eta obretan

18

Ez bagira Eskualdunak lehen bezain handi
Aphaldu gabe chutik beden gaiten geldi
Gernikako arbola dugula lekhuko
Bethi tink atchikiak bihotzez elgarri.

19

Eskuarazko hitzkuntza atchikiz mihian
Berdinikan ez baitu lurraren gainean
Lehengo fede bera horrekin batean
Zeruan izaiteko eternitatean.

## Eskualdun kantaria

Gure Jaunkoak emanik badut jite bat maita garria
Ene entzuten choraturikan hor daukat Eskual-Herria
Kantu zaharren et berrien kantatzea dut loria
Goiz arras kantuz ari naiz nola primaderako choria

2

Lehen kantua kantatu nuen, demborak ditu hainitz ...
Gocho gochoa nindadutalo ene amattok altzoan
Geroztik hunat amentsetarik kantua daukat goguan
Gau eta egun lanean ere kantu eginez gostuan

3

Ene kantua entzun orduko nigana laster jendeak
Ene kantuak choratzen ditu orduro aditzaleak
Handizkiak, eskuak joka, hor ari dire guziak
Ilhun eginez ~~ahantz~~ ez dik ahantz parerik Eskualdunen kantariak

4

Kantu eginez laudatzen dut nik Jaunkoaren handiena
Kantu eginez konsolatzen dut triste nigarrez dagona
Kantu eginez ahantz-arazten dakot zori gaitz illuna
Solas idorrak baino hobeki kantua baita entzuna!

5

Ene bizia holache doha kantu eginez bakean
Jainko Jaunari galde bakhar hau kantatuz ardurenean
Ene egunak alegeraki burueratzen direnean
Onets dezazu kantuz sar nadin zure zeru ederrean

## 8. Arranoa eta Otsoa

Arrano'ta otsoa behin auzo hrak
Solasean zagozin ~~ase~~ ontsa bazkaldiak
ahari bat jan eta ase hampatiak
Aphurtto baten dako gostuan jarriak

2

Otsoa zen hentzat ahari hiltzaile
Ase ziren ondoan, egin zuten elhe
Gostuan egon eta berbehtera daude
Brakotcha juaiteko zoin bere ezkualde

3

Azken hitza hau dio. erten arranoak
Bertzaldi bat artino orai ni banoak
Hegalak zabaltzen tu bermatu zangoak
Airez iragaiten tu menden kaskoak

4

Ikus ahala urrun. ichtante badoha
Gibeletikan beha dagoko otsoa
Hartaz loriaturik han dago gaizoa
Sulank uros duk uros arranoa

5

Hea ikus nik ere naizenez joanen
Arranoak bezala dukedan egunen?
Arroka gain batetik du jausi egiten
Hegalen gisa zango beroak ehiltzen

Hegalik gabe nahiz gaizoak airatu
Erori zen lurrerat bai eta lehertu
Harroka haren zolan hilikan gelditu
Bere hezur guziak zitzaizkon chehatu

~~Otso hoi iduria~~ 7

Otso hoi iduriak izaiten askotan
Beren heinaz gorago dabiltzan jendetan
Aberatser jarraiki nahute orotan
Ditustenak chahutu erortzen enekan

## 9. Cathalin

Cathalin deitzen dena hura nechkacha bat
Juiten ari den amatto bezembat
Oraiko dembóretan ez da bertze hambat.

2

Oi zer nechka ederra kiloa guerrian
Bere jaunztura ere moda chaharrian
Truño bat badauka bethi aurpegian

3

Langilea osoki, prestua ichila
Nonnahi aurki dadin zuhurki dabila
holako bakar batek balio tu mila

Juten pirun pirun berant arratsetan
Nihaurek ikusi dut hegoït-ta-batzetan
Kantu-ño batzu ere kantatus artetan

5

Alhorretan lanean artzain mendietan
Berdin ongi badaki sukalde lanetan
Edozoin ongi doha horren eskuetan!

6

Jainkotiarra baita bihotzez gartia
Igandletan eliza du egon tokia
Aldareari buruz so ezti eztia

7

Kutcha zahar bat badu ohalez bethea
Bigarrena hasirik ja badu urthea
Ezkon-gei izan banintz zer etchek-andrea

10. Artzain mendian

Kukua kantuz hasten deneko etorri da primadera
Nere ardiak lero leroan abiatu naiz mendira
Itzaut goitzegi beniz heltzea joanden urtheco tokira
Bozkario bat arras gozoa etortzen zaut bihotzera
Ikus orduko nere etchola mendi hartan urrunera

Primaderako jauntzi ederrak aphaindu ditu mendiak
Harat beharrez lehen bai lehen bidean ditut ardiak
Aldapa gnoa gora dohazi aldean bildotz gazteak
Chorikok fanfan, arboletarik chichtu'ta chichtu choriak
Joare larrein bilumbekilan airatuz bazter guziak

Ene etchola gaicho etchola hemen nauk hire aldean
Erege baino urosago nauk egonen hire barnean
Harroka bati josia dago eskar ene orroitean
Kurutze-ño bat emana diot atearen gain gainean
Utzai gaitzgaitzhtotik begiratzeko oldartu nahi denean

Mendi gainean orain hemen naiz ethorri arte negua
Hedoaik bezain gora abantchu zerurano hurbildua
Hemen du hemen ene bihotzak hatzemaiten zozokegua
Bakean eta libertatean oi zer dembora gozua
Goizetik arats choriek kantuz naukatela choratua

Arduak alharazten ditut ~~bar~~ agia haztean denean
Archik' ahala asetzen dira nik gasna egin artean
Bainan gero sar arasten ~~ditut~~ bero bada itzalean
Churiko urguinaka bethi hau dute beren aldean
Bara ihisi garchto guziak hautzatuz bertamtzunean

Gerren batean ere chingarra bai eta talo guria
Gopor haundi bat esnez beterik huna ene janharia
Edaritzat ~~aldiz~~ hur garbia artetan arno gorria
Hola niz azkar larrua garbi, arrosa bat iduria
Ni urrikari mauena daukat bera urrikalgarria

Artzain lagunak jostatzen gira elgarren ganat bildurik
Sorhopiletan pilotan ariz eta musean ondotik
Baieta ere igandetako mezarat jautsten menditik
Gibelekoan bidean kantuz eta koplaka gogotik
Zoinek hobeki urrinzinaka ilhuna gure gerostik

Asko badira dohakabeak beren nahiz mundu huntan
Herritar gazte batzu badazkit beren nahiz hirietan
Zorion bila beren ustean harat joanak menditikan
Jainkoak daki zer ari diren kerrugo zoko ilhunetan
Ni bezalatzu artzain balire hobe luketela millatan

Ezin hiziaz alferrak badu egiteko zinkurina
Nik aldiz urthe guziez bethi nasai biltzen dut mozkina
Oste eder bat badaukat eta hoberenean adina
Menditar nechka gazte batekin ezkontzeko hitz-egina
Jainkoak benedika dezala gure biën ephede zina

P. Laffite jaun aphreza

Ene pertsuak ez dira gain guinekoak
Zuhaurek ikusiko duzun bezala.
Baldin gehiago nahi bazinu, baitut
oraino mutchu guwbat zure zerbitzuko
izanen direnak

Zure zerbitzari
P. Erramouspe

Itourrigue

B 44

L. G. DEPOSÉ

Peio [Peio Erramuzpe]
Simon semeak idatziak 

## Umek Amari

Oi zure ama maitea
Etzinelarik gaztea,
Aurpegi pollit eznea,
Zure irriñoa ezti horrek daut arintzen bihotz karmea
Zutaz lizaz gozatzea
Ikus zure zahartzea
Atsegin dut ikustea

Beha hur langileari
Nola den lanean ari
Landaren arthatzeari
Nekeak oro iragan eta ondotik badu sokorri
Langile hura iduri
Amatto zu zare jarri
Zorionean igeri

Orai zahartze mailean
Zure umeen artean
Gozoki zaude etchean
Zure egunak akabaturik herio beltzak jotean
Gerta zaitela bakean
Ama Birjina aldean
Jinkoaren aintzinean

## Aita baten azken zuhurziak bere semeari

Aitak erran zerautan gazte nintzelarik
Ene erran zuhurrer ongi kasu egik
Ikusiak ditiat zaharragotarik
~~Ht~~ Hamendik goiti hiri erranen tiat nik

Gizon bat nahi baduk Eskualdun atera
Ez hadila erabil arrotzen gisara
Eskuara maita eta mihian Eskuara
Ezinbertzean baizik ez mintza erdara

Jainkoa maita eta bai haren legea
Hortan azkar atchikak heure sinestea
Elgarrekin doazik bat ala bertzea
Eskualdunak eliza dik bere maitea

Orai adina baituk gazte eta azkar
Itzakala aztura gaichtoetarik har
Haurrean bezain garbi bihotz hori ekar
Lohirik ez dadila horren barnerat sar



## Koplak

### Larrazkena

Uda egun luzekin hara iragana
Iguzkiaren kaldak gorenez egina
Hamabi oren gaua, hamabi eguna
Handik goiti heldu da ~~ger~~ orai larrazkena

Gauak luzatuz, ezti, eguna da jarri
Zentzudun gizon gozo bat dela iduri
Eskerrak zor ditugu gure Jainkoari
Eta hark igorririk jin larrazkenari

Urriko hilabethe parerik gabean
Labraria ez da ez atsegabean
Bil ohala hazkurri, badu etchaldean
Gose beldurrik gabe da larrazkenean

Arthoak zohituak bai eta gaztenak,
Molko gorriak dauzka dilindan aihenak;
Barrikak betheko tu hekien urinak;
Holako gauzak ditu bethi larrazkenak

Arbolari frutua orai hundu zaiko:
Lurrean da hezkurra eta bezte asko
Gure babala maiten ongi gizentzeko
Hona zer gauzak diren jin larrazkenetik.

Betzunak harrankaka, airean gorait
Urso urdinak loriz hegalak salhurik
Iragaiten zaizkigu, bertzal hemendik
Oi zer ikusgarriak guk larrazkenetik

Ihiztarientzako han da han dembora
Haize hego eztia delarik ardura
Urthe guziz diote bethi solas bera
Ago aga hel gaiten hel larrazkenera

Orenak choragarri dituzte goizetan
Urzoen hatzemaiten, mendi hegaletan
Batzuk tirokka eta bertzeek saretan
Bethi hola dabiltza hor larrazkenetan



arthoak bildu eta eraiten ogiak
Hazaro erditako ahalaz guziak
Ilharde phiztdea dira negurako jarriak
Laster sortharazirik larrazken eztiak.

Damurik ez bethiko zure iraupena
Dembora maitagarri eta hoberena!
Gazte ala zaharren gozo bat zarena
Kantuz eraiten dautzut: « Agur larrazkena. »

---

Ostatuetan

---

Ostatuko zokoak oi zer toki hutsak!
Bainan heien tirria izaiki ainitzak ....
Handire han gaichtoen frankoren bihotzak
Debaldetan igoriz nekhez bildu sosak....

Ostatuan gizona nola den zoratzen!
Edan eta pipatuz nola den hordiatzen!
Nihun ez da han bezain zikhinki mintzatzen
Lohikeria baitu edanak barnatzen....

Batzu mozkortu eta oihuz eta kantuz:
Bertze batzu aharran, elgar dichidatuz,
Gogoan dituztenak kamporat botaliz
Hola iduri dute gabetua zentzuz...

Egungo egunean gure herrietan
Ostatuak bethetzen dire igandetan
Jende guti elizan ofizioetan:
Hortakotz da gisako guti kazlerretan.

Beude gu ganik urrun ostatu guziak
Gorphutz eta arimen dire galgarriak
Ostatuak ausarki dituen herriak
Usu izaiten ditu jende bihurriak

---

## Primadera.

Lau dembora gathiz eguna urthea
Zathi bathez gogo dut, ezin kantatzea
Ahal den bezain chuchen haren aiphatzea
Zeren den edergailu guziz bethea.



Neguaren ondotik zoin den chorafarri
Bedatzean sarthuak, gareneaz jarri
Lotarik da baztena orai iratzarri
Urrepikan choriak orotan kantari

Argia urratzean hasten dira kantuz
Atsegin dutelakotz bedatzean sarthuz
Lore eta ostoen artetan finkatuz
Urrepikan dagozi ezin enhcatuz

Dembora hasten baita hotzetik ephaltzen
Orduan hasten dira loreak agertzen
Loren ondotik hiziz ostoak zabaltzen
Zelhai eta mendiak belharrez estaltzen.

Lunaren gain guziz ederki jarria
Lore, ostoz belharrez dena estalia
Iguzkaldearekin da chorafarria
Beren jauntzia baita arropa berria.

Gorzetan has orduko urratzen argia
Oheari ez dagoke non ez den nagia
Kampo guzia baita bere usaindia :
Gochotarzun bat badu ainitzez ezta

Laborari ernes gorzikan jeikirik
Lanari lotzen saiko bozkariaturik
Gogoa arhin eta indarrez betherik
Guti du hautemaiten lanaren nekerik

Bere lanak artoski fartitu egiten
Lurrak irauli eta arthoak ereiten
Ogiak ere hasi baitzaizko kurutzen
Ihentzetako belharrak ederki luzatzen

Zer loria artzainak ez du bedatsean
Bildotsak gizen eta ardiak asean
Mendirat buruz doha lotzik machatzean
Icaldunik ederrena bertzen aintzinean



Bedatsean zaharra iduri gaztetzen
Bozkarioak baitu haba ernaratzen
Bere gaste den boraz orduan orhoitzen
Irri batekilan du bastener behatzen

Urthzeak bedatsca du gazte denbora
Usain gozo batekin osoki ederra
Bertze den borak ere hambat eder dira
Hekien aldean zu ederrago zira

Primadera guziaz kantari kukua
Ost' artean dagolarik ongi gordetua
Bedatsa urruntzean jartzen ichildua
Halaber ichiltzen dut nik nere kantua

Aurthengotzat akhaba zirela ungiz
Gogoa ilhunikan orai baratzen niz
Ikhusi gogo zaitaut nik orano berriz
Jainkoak uzten banau bizirik Halabiz

# Gerla handia.

Airea: Choriñoa norat joan hi hegalez airean

Hemeretzi ehun eta hamalaurko urthean
Agorrilaren lehena atsalde apalean.
Ezkila errepiketan aditu nuenean
Ikara bat eman zautan boz harek bihotzean

Ezkilak huna zer zion bere boz ozenean:
« Frantzia gerthatzen zela hertsamendu gaitzean
« Bere haurrak orai chuti guziak bat batean
Alemana jazarri zaut erho bulta tzarrean

Auherrik eta nigarrik baizik ez zen orotan
Herriak gizonetarik hustu ziren bet betan
Emazteak eta haurrak zaharrekin etchetan
Beren tcharraren beldurrez zaudelarik gogotan

Nola primaderan dohan ~~urzo~~ urso papu ñabarra
Airez aire hegaldatuz hegotik iphar(r)era
Halaber laster joan ziren Alemanen bidera
Aldan gaitzean heldu zen Frantziaren hartzera

Belgika ttipia zuen lehertu zangopetan
Gu laster chehakatzeko ethorri zen handikan
Batzu gure alde eta bertzeak heiekilan
Europa gehiena zen ichtante jarri sutan

Lehembiziko guduan naussitu zitzaizkun
Belgikatik jin ihesi Pariseri ez urrun
Hango armada bat jin zen Marne-rat gure lagun
Gudu bakar oste hera kusi othe da nihun

Marnen garaitu ginuen baizan hark ez etsitu
Bertze gisa batera zen handik goiti jokatu
Satorrek bezala zuen lur azala zilhatu
Holachet nahi gintuen hera gordez garaitu

Gu ere hura bezala sarthu ginen lurrean
Burdin haritzko hesiak emanik aintzinean
Nork erran zer pairatu den zilho heien barnean
Lotseria bat hotzen zaut oraino orhoitzean



Frantzia lerro batean holachet zen hetsia
Nolaz bait gibel aintzinka lau urthez atchikia
Etsaiak ez utzi nahi hartu zuen pozia
Orzantza iduri ari burdinazko erauntsia

Gerla itsaso gainean gerla itsaso pean
Lur gainean lur barnean bai et'are airean
Herioa marrumaka bethi gure aldean
Iduri ifernu beltza jarri zela lurrean.

Verdun-go inguruetan metaka hil gaixuak
Hobirik gabe lurrean eguzkiak beltztuak
Azko gorphutz ezin erran nola chehakatuak
Biziak heien aldean ja hil bilakatuak

Azkenean Jainko jaune zitzaukun urrikaldu
Ama Birjinak baitzuen guretako othoiztu
Zithoetarik ihesi etsaia abiatu
Bere lurretan sartzean hark hakea galdetu

Jondoni Martin gauzean lau urtheren buruan
Su izigarria hil zen eguerdi aintzinean
Foch handia buruzagi jarri ondar urthean
Harek gidatuz garraitu ginuen azkenean

Hamabortz ehun mila hil Frantzes gizonetarik
Bertze hainbertze mainkatu bethikotz ahuldurik
Aita amak nigarretan beren haurrak gabedurik
Asko haur gaicho orobat ez dutenak aitarik

Gerlan hilez orhoit gaiten orai bake denboran
Herriarentzat baitute beren odola eman
Heier esker Frantses lurra Frantsentzat da izan
Jainko jauna othoizten dut bere ganat har ditzan

Lagun tzarrak badituk berri gazetan
Gurean ere segur ez duk dudarikan
Urrunt othoi hetarik bai heure hundetan
Bertzenaz zariko hiz hiren hatz heretan

Zertarat nahi huen Jainkoari galde
Ez kontzerako edo aphez edo fraide
Hiretzat den bidea utzirik debalde
Ez hadila erabil itsu baten pare

Jainkoaren nahia: ar gaiten lanean
Alferkeriak ez dik deus onik lurrean
Sabelari manatuz behar den heinean
Ez utzi urgulurik nehori bihotzean

Nik gorena eginik abian behit
Ait'amak zahartzean ontsa ekar bethi
Asko burraso dituk bere haurren zehi
Holakoak etchean ez nikek ez nahi

Holako solas zuhur asko erten zautan
Argituz adinari dohazkion gauzetan
Heriok jo zuen bekhagoi urthetan!
Ez dut ahantz behar nere othoitzetan!